



Auzokideak jaietan laguntzera gonbidatu dituzte Amaran

Hilaren 30etik abuztuaren 3ra bitarte, jaietan murgilduta egongo dira Amaran. Urtero moduan, ez dira faltako jai horien berezitasuna diren kontzertuen tartean egiten dituzten jolasak, eta hainbat jardueretarako izen emateak zabalik daude.

✉ Sara Ibarguren Etxeberria

📷 Amarako jai batzordea

Amarako jaiak hilaren 30ean hasiko dira, eta auzoa prest dago bost egunez festetan murgiltzeko. Jai batzordeak azaldu duenez, urtean zehar, ondo moldatu dira egitaraua pixkanaka lotzen joateko, «aurreikusitakoa baino hobeto eta garaiz». Izan ere, batzordean bertan duten giroak asko laguntzen du horretan, eta, ziurtatu dutenez, «motibazioa ez da falta». Hala ere, jaiak gainean dituztela, auzokideak gonbidatu nahi izan dituzte txan-

dak egitera, herri bazkarian, kaleak moztan edo txosnan, denon laguntza «beharrezkoa» dela argudiatuz.

Jai batzordearen arabera, aurten ez da berritasunik izango, baina Haurren Eguna «finkatu eta egonkortu» dutela nabarmendu dute. Hain zuzen ere, egun horrekin hasiko dituzte jaiak, jarduera sorta eder batekin: haurrentzako eskulan tailerrak, apar festa, haur bazkaria eta bingo musikatua izango dira eguerdira bitarte; arratsaldean, berriz, *Historias de un*

baul antzezlan eta 3Txulo txaranga izango dituzte pregoiaren aurretik.

19:00etan izango da pregoia, eta une horretatik aurrera, askotariko jarduerak izango dituzte auzoan. Hala ere, zerbait nabarmentzekotan, kontzertuen tartean egin ohi dituzten jarduerak aipatu ditu jai batzordeak: «Horiek dira Amarako jaietako berezitasuna ematen dietenak, giza

Festek auzokideekin harremanzako eta elkarrekin giro atseginean gozatzeko aukera ematen dutela nabarmendu du jai batzordeak

kroketa txapelketa, takoi lasterketa eta sokasalto herrikoia, hain zuzen ere».

Adierazi dutenez, auzoa jaietarako gogoz dago, izan ere, «jaietako aukera ematen dute auzokideekin harremanzako eta belaunaldi desberdinek elkarrekin jai giro atseginean gozatu eta lan egiteko». Hain zuzen ere, auzotarrek elkarrekin egiten dituzte jaietako hainbat jardura. Horien artean, paella eta marmitako txapelketak eta danborrada herrikoia nabarmentzen dira, besteak beste. Batzordeak adierazi du horietan parte hartzeko alde aurretik izena eman behar dela, amarako.jaiak@gmail.com emailera idatziz.

Kontzertu eskaintza

Ohiko moduan, kontzertuak programatu dituzte gauak girotzeko. «Urtero saiatzen gara kontzertuetarako auzoko edo Donostia inguruko jendea ekartzen. Horrez gain, bilatzen dugu euskaraz izatea eta oholtzan espazioa eskaintzea emakume eta orotariko gorputz disidenteei», nabarmendu dute.

Horrela, La Txama, La Fulana DJ-a, Piru DJ-a, Arrixku, Udda eta Adarrak DJ-ak eta MJ Oliba eta Antxoa igoko dira jaietako oholtzara, auzoan dantzari jarri eta une gogoangarriak uzteko asmoz. ●

ASTEAZKENA 30

Haurren eguna

11:00

Haurrentzako eskulan tailerrak.

12:30

Apar festa.

14:00

Haur bazkaria. Bazkalostean, bingo musikatua.

18:00

Historias de un baúl antzezlan.

18:30

3Txulo txaranga.

19:00

Pregoa, eta ondoren erraldoi eta buruhandiak. Jai seguru eta askeen aldeko argazkia.

19:30

Kontzertua, Bodeguillan. Arima diskofesta.

20:00

Botea.

22:00

Zezensuzkoa.

23:00

Kontzertuak: La Txama eta La Fulana.

OSTEGUNA 31

11:00

Herri krosa.

17:00

Euskal dantzak, Eskola Dantza Taldea.

17:30

Tortila txapelketa, sari banaketa eta dastaketa.

19:00

Buruhandiak.

20:30

Kontzertua, Urban taberna.

22:00

Karaokea, Piru DJ-a.

OSTIRALA 1

Gazte eguna

11:00

Paella prestaketa.

14:30

Gazte bazkaria.

16:00

Bingo musikatua.

17:00

Xake txapeketa eta kuadrillen jolasak.

19:00

Kartelada.

20:00

Elektrotxaranga eta sardina jana.

22:00

Zezensuzkoa.

22:30

Arrixku, Udda eta Adarrak DJ-a. Atsedenetan, sokasalto herrikoia eta takoi lasterketa.

LARUNBATA 2

10:30

Marmitako txapelketa (13:30ean, sari banaketa).

14:30

Herri bazkaria.

17:30

Pala finala, Amarako frontoian.

18:00

Ardo dastaketa (plaza txikin).

19:00

Buruhandiak.

20:00

Danborrada herrikoia.

22:00

Zezensuzkoa.

22:15

3ttu erromeria.

01:30

Giza kroketa txapelketa.

02:00

MJ oliba eta antxoa.

IGANDEA 3

18:00

Plaza dantzak.

19:00

Toka eta buruhandiak.

20:30

Oilasko jana.

00:00

Jaien amaiera.



Ondo pasa Amarako jaietan!

Anoeta Pasealekua, 30, 20014 Donostia | xantijatetxea@gmail.com | 943-45 74 36